


MERKATARITZA DATUETAN

2013 KO 2. HIRUHILEKOA



2013KO ABUZTUAK 30

Aurkibidea

1	Salmenten bilakaera	3
2	Gizarte segurantzako afiliazioen bilakaera	5
3	Kontsumitzailearen konfiantzaren indizearen bilakaera	8
4	Kontsumorako prezioen indizearen bilakaera	10

1 SALMENTEN BILAKAERA

Tituluak:

- Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,9 jaitsi ziren 2013ko 2. hiruhilekoan
- Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %0,8 nominala jaitsi da

Eustatek emandako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2013ko bigarren hiruhilekoan, salmenta nominalak %0,9 jaitsi ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean, eta lan-egutegi homogeneousetan. Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %1,9 jaitsi ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,8 nominala jaitsi da, urtaro-eraginak kenduta.

EUSKAL AEKO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA				
2. HIRUHILEKOA. 2013				
	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t/t-4	t/t-1	t/t-4	t/t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-0,9	-0,8	-3,7	-1,6
Araba	-0,5	0,0	-3,4	-0,5
Bizkaia	-1,3	-1,5	-4,0	-2,6
Gipuzkoa	-0,5	-0,1	-3,3	-0,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-1,4	-1,0	-4,6	-1,4
Elikagaietan espezializatuta	3,1	-0,1	-1,2	-1,4
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-3,4	-1,3	-6,2	-1,9
Beste produktuak	-2,3	-2,2	-4,8	-2,3
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-8,6	-3,5	-12,5	-4,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-0,9	0,6	-1,7	0,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	0,8	0,3	-0,6	0,5
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak	9,8	3,3	7,4	0,3
Automoziorako erregaia	7,6	6,5	6,4	3,5
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabeko	-1,9	-1,7	-4,7	-1,9

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

1.Taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

Elikagaien salmenta nominalak %1,4 murriztu ziren 2013ko bigarren hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %2,3 jaitsi ziren eta automobilgintzarako erregai-salmenta %7,6 gehitu, beti ere 2012ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %3,1 handitu zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %3,4 murriztu. Gainerako produktuen txikizkakoan igoera dago gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan (%9,8) eta beste kontsumo-ondasunen espezializatuan (%0,8); indar ezberdinetako jaitsierak gainerako sektoreetan. Pertsonaren ekipamenduaren espezializatua %8,6 jaitsi zen eta etxeko ekipamenduarena %0,9.

2013ko bigarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %1,3 murriztu dira. Bizkaian urte artean; lurraldeetako jaitsierarik handiena. Bai Araban, bai Gipuzkoan salmenta nominalak %0,5 gutxitu ziren.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %3,7 murriztu ziren bigarren hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegiak sartu gabe- %4,7ko jaitsiera errealak -prezio finkoetan izan zuten 2012ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera errealak %4,6 izan zen; Gainerako produktuetan %4,8, 2012ko hiruhileko beraren aldean, eta automobilgintzarako erregai-salmentetan %6,4ko hazkundera.

Elikagaien txikizkakoan urte artekoak negatiboak izan dira bai espezializatuan %1,2, bai elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %6,2. Gainerako produktuetan jaitsierak denetan, Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan izan ezik, zeina %7,4 hazi baitzen. Pertsonaren ekipamenduan %12,5eko jaitsiera; etxeko ekipamenduan %1,7koa; kontsumoko beste ondasunetan %0,6koa, beti termino errealetan.

Hiru lurraldeetan izan zen jaitsierarik salmentetan termino errealetan: Gipuzkoan %3,3, Araban %3,4, Bizkaian %4,0.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %1,6ko jaitsiera izan da aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Merkataritzaren barruan, Handizkakoan %4,6ko jaitsiera nominala dago. Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan %4,2ko murrizketa dugu aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Merkataritzan urte artekoa negatiboa izan da sektore guztietan: Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %3,9 jaitsi da eta Handizkako merkataritzaren salmenta-indizea %5,4.

EAEKO HANDIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA ETA IBILGAILUEN SALMENTA ETA KONPONKETA INDIZEA				
URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA				
2. HIRUHILEKOA. 2013				
	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t/t-4	t/t-1	t/t-4	t/t-1
HANDIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA				
Euskal AE	-4,6	-2,2	-5,4	-3,2
Araba	-3,8	-6,8	-5,3	-2,2
Bizkaia	-2,1	-0,5	-2,5	-1,7
Gipuzkoa	-9,2	-2,8	-10,4	-6,3
IBILGAILUEN SALMENTA ETA KONP. INDIZEA				
Euskal AE	-4,2	0,4	-3,9	0,0
Araba/Alava	-5,2	0,8	-4,0	1,3
Bizkaia	-0,1	0,2	0,0	0,2
Gipuzkoa	-9,7	0,6	-9,4	-1,3

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

2.Taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

2 GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Tituluak:

- Apirilean eta maiatzean afiliazioen jaitsiera, ekainean berreskuratzea
- Urte arteko alderaketa: merkataritza sektoreko afiliazioetan %5,58ko jaitsiera

3. taulan 2013ko 2. hiruhilekoari dagokion lurralde historikoen eta erkidegoaren afiliazioen bilakaera adierazten da. Handizkariaren sektorean, Bizkaia da portaerarik hoberena aurkezten duen lurraldea, apirileko eta maiatzeko beharakada txikia izanik eta ekainean berreskuratze garrantzitsua gertatuz. Araba eta Gipuzkoak beharakada handiagoak erakusten dituzte, ekainean afiliazioak hazten badira ere ez dira izandako jaitsiera berreskuratzeko gai.

Txikizkariak zenbaki hobeak aurkezten dituzte. Apirilean 3 lurraldeetan afiliazioek behera egin badute ere, maiatzean (Bizkaian ez ezik) eta ekainean afiliazio kopurua hazi egin da. Bizkaiko maiatzeko txikizkako afiliazioen jaitsiera honek EAEko hilabete horretako emaitza eragozten du, afiliazioak % 0,09an soilik haztea ahalbideratuz.

Ibilgailu eta ordeko piezen sektoreari dagokionez, apirilean jaitsierak aurkezten ditu eta beharakada zerbait txikiagoak maiatzean, Gipuzkoan ez ezik bertan gora egiten baitu. Ekainean afiliazio kopurua handitu egiten da, ziurrenik PIVE plana bukatzeaz zegoelako, oraindik ez zen honen luzapena iragarri.


Termino orokorretan, merkataritza sektorerako apirila afiliazioen jaitsiera erakusten duen hilabetea da, hiru lurraldeetan antzeko jaitsiera ematen da, EAEko batezbestekoa $-%0,58$ koa izanik. Maiatzak Araba eta Bizkaian beharakadak aurkezten ditu eta Gipuzkoan ematen den hazkundea ez da hau konpentsatzeko gai, erkidego osorako $-%0,06$ ko saldo negatiboa erakutsiz. Ekaina hilabeterik positiboena da lurralde guztietan gehikuntza emanik eta EAE osoan $+%1,44$ ko hazkundea izanik.

LURRALDE HISTORIKOAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2013KO 2.HIRUHILEKOA

	ARABA	ALDAKUNTZA	GIPUZKOA	ALDAKUNTZA	BIZKAIA	ALDAKUNTZA	C.A.E.	ALDAKUNTZA
Handizkariak								
13/04	5.870	$-%0,19$	12.584	$-%0,28$	20.564	$-%0,30$	39.018	$-%0,27$
13/05	5.801	$-%1,18$	12.528	$-%0,45$	20.563	$%0,00$	38.892	$-%0,32$
13/06	5.839	$%0,66$	12.559	$%0,25$	20.715	$%0,74$	39.113	$%0,57$
Txikizkariak								
13/04	10.002	$-%0,99$	23.668	$-%0,72$	45.728	$-%0,67$	79.398	$-%0,73$
13/05	10.051	$%0,49$	23.809	$%0,60$	45.606	$-%0,27$	79.466	$%0,09$
13/06	10.225	$%1,73$	24.368	$%2,35$	46.451	$%1,85$	81.044	$%1,99$
Ibilg. eta ord. piezak					6.417			
13/04	2.119	$-%0,66$	4.323	$-%0,23$	6.368	$-%0,76$	12.810	$-%0,57$
13/05	2.104	$-%0,71$	4.334	$%0,25$	6.356	$-%0,19$	12.794	$-%0,12$
13/06	2.118	$%0,67$	4.369	$%0,81$	6.397	$%0,65$	12.884	$%0,70$
Guztira								
13/04	17.991	$-%0,69$	40.575	$-%0,53$	72.660	$-%0,57$	131.226	$-%0,58$
13/05	17.956	$-%0,19$	40.671	$%0,24$	72.525	$-%0,19$	131.152	$-%0,06$
13/06	18.182	$%1,26$	41.296	$%1,54$	73.563	$%1,43$	133.041	$%1,44$

3.taula. Iturria: GSIN.Lantzeta: Ikusmer.

1go grafikoan merkataritzako afiliazioen bilakaera ikusi daiteke, metatutako EJSNren 45, 46 eta 47 epigrafeak, 2009ko urtarrilean seriea hasi zenetik., EAE osorako.



1. Grafikoa. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

4. taularen bitartez, urte arteko moduan eta azpisektoreka azterketa bera eginez, EAE mailan afiliazioek azpisektore guztietan behera egin dutela ikusten da, $-\%4,66$ handizkako merkataritzarako, $-\%6,39$ txikizkako merkataritzarako eta $-\%3,32$ ibilgailu eta ordezko piezen salmentarako. Metatutako merkataritza sektore osorako urte arteko jaitsiera $-\%5,58$ an zenbatzen da. Lurraldeen arabera bilakaerak kasu guztietan antzeko portaera erakusten du, Autonomi Erkidegoko igarotako hiruhilabeteko antzeko proportzioko jaitsierekin.

LURRALDE HISTORIKOAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2013KO 2.HIRUHILEKOA

Handizkariak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	C.A.E
2012ko afiliazioak (ekainaren 30an)	6.094	13.195	22.736	41.025
2013ko afiliazioak (ekainaren 30an)	5.839	12.559	20.715	39.113
Aldakuntza	$-\%4,18$	$-\%4,82$	$-\%8,89$	$-\%4,66$
Txikizkariak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	C.A.E
2012ko afiliazioak (ekainaren 30an)	10.895	26.096	49.582	86.573
2013ko afiliazioak (ekainaren 30an)	10.225	24.368	46.451	81.044
Aldakuntza	$-\%6,15$	$-\%6,62$	$-\%6,31$	$-\%6,39$
Ibilg. eta ord. piezak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	C.A.E
2012ko afiliazioak (ekainaren 30an)	2.235	4.459	6.618	13.312
2013ko afiliazioak (ekainaren 30an)	2.118	4.369	6.397	12.884
Aldakuntza	$-\%5,23$	$-\%2,02$	$-\%3,34$	$-\%3,22$
Guztira	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	C.A.E
2012ko afiliazioak (ekainaren 30an)	19.224	43.750	78.936	140.910
2013ko afiliazioak (ekainaren 30an)	18.182	41.296	73.563	133.041
Aldakuntza	$-\%5,42$	$-\%5,61$	$-\%6,81$	$-\%5,58$

4. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

5. taulan sektoreka, hiletik hilerako bilakaera ikusi daiteke, 2013ko bigarren hiruhilabeterako, EAEko merkataritzako oinarritzko 6 udalerriei dagokienez.

Handizkako sektoreak zenbateko negatiboak aurkezten ditu hiruhilekoaren lehenengo 2 hilabeteetarako, Getxorako ez ezik, Getxon apirileko hilabetean +%1,57ko hazkundera ematen baita. Ekainean ordea, Donostiak ez ezik, hiri guztiek zenbateko positiboak erakusten dituzte, Donostian -%0,2ko jaitsiera ematen da.

Txikizkariak apirilean afiliatioetan behera egiten dute hiri guztietan, Irunen ez ezik, bertan +%0,66ko hazkundera ematen da, Irun da aztertutako denboraldi guztian hazkundera erakusten duen hiri bakarra. Maiatzean Bilbon eta Getxon ez ezik, hiri guztietan afiliatioetan hazkundera ematen da, Bilbon -%0,30 eta Getxon -%0,85. Ekainean hiri guztiek txikizkako sektoreko afiliatioetan gora egiten dute.

Ibilgailu eta ordezkio piezen sektorean Getxo eta Irun dira bilakaera onena erakusten duten hiriak, hauen afiliatioak aztertutako hiru hilabeteetan gora eginez, Barakaldo ordea kaskarrena da etengabeko jaitsierekin. Termino orokorretan, merkataritza sektorera, apirila udalerrri guztietan hilabete negatiboa da Getxon ez ezik. Maiatzak bere aldetik, Donostia eta Irunen bakarrik erakusten du hazkundera. Ekaina aztertutako udalerrietarako inflexio hilabetea da, udalerrri guztiak Gizarte Segurantzako afiliatioetan hazten baitira.

UDALERRIAK. HILETIK HILERAKO AFILIZIOAREN BILAKAERA - 2013KO 2.HIRUHILEKOA

	GASTEIZ	ALDAKUNTZA	DONOSTI	ALDAKUNTZA	BILBAO	ALDAKUNTZA
Handizkariak						
13/04	4.541	-%0,39	3.715	-%0,32	5.388	-%0,20
13/05	4.482	-%1,30	3.713	-%0,05	5.372	-%0,30
13/06	4.531	%1,09	3.705	-%0,22	5.423	%0,95
Txikizkariak						
13/04	7.919	-%1,32	8.308	-%1,22	13.801	-%0,86
13/05	7.952	%0,42	8.319	%0,13	13.760	-%0,30
13/06	8.084	%1,66	8.659	%4,09	13.926	%1,21
Ibilg. eta ord. piezak						
13/04	1.614	%0,00	967	-%0,62	1.463	-%0,88
13/05	1.601	-%0,81	968	%0,10	1.484	%1,44
13/06	1.609	%0,50	978	%1,03	1.485	%0,07
Guztira						
13/04	14.074	-%0,87	12.990	-%0,92	20.652	-%0,69
13/05	14.035	-%0,28	13.000	%0,08	20.616	-%0,17
13/06	14.224	%1,35	13.342	%2,63	20.834	%1,06

	BARAKALDO	ALDAKUNTZA	GETXO	ALDAKUNTZA	IRUN	ALDAKUNTZA
Handizkariak						
13/04	619	%0,49	1.102	%1,57	1.358	-%2,93
13/05	621	%0,32	1.100	-%0,18	1.327	-%2,28
13/06	619	-%0,32	1.102	%0,18	1.354	%2,03
Txikizkariak						
13/04	4.307	-%0,28	2.011	-%0,40	2.428	%0,66
13/05	4.272	-%0,81	1.994	-%0,85	2.490	%2,55
13/06	4.375	%2,41	2.025	%1,55	2.536	%1,85
Ibilg. eta ord. piezak						
13/04	434	-%0,46	140	%0,00	549	%1,10
13/05	422	-%2,76	141	%0,71	558	%1,64
13/06	420	-%0,47	141	%0,00	559	%0,18
Guztira						
13/04	5.360	-%0,20	3.253	%0,28	4.335	-%0,44
13/05	5.315	-%0,84	3.235	-%0,55	4.375	%0,92
13/06	5.414	%1,86	3.268	%1,02	4.449	%1,69

5. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

Afiliazioen urte arteko bilakaera aztertuz, 6. taula, udalerrri eta azpisektore guztietan jaitsiera esanguratsuak antzeman daitezke, Getxoko handizkako merkataritzan izan ezik (+%0,55ko hazkundea), baina txikizkako merkataritzari dagokionez, udalerrri honek datu kaskarrenak erakusten dituen udalerrria da, -%4,48.

UDALERRIAK URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2013KO 2.HIRUHILEKOA

Handizkariak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN
2012ko afiliazioak (ekainaren 30an)	4.749	3.935	5.736	732	1.096	1.433
2013ko afiliazioak (ekainaren 30an)	4.531	3.705	5.423	619	1.102	1.354
Aldakuntza	-%4,59	-%5,84	-%5,46	-%15,44	%0,55	-%5,51
Txikizkariak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN
2012ko afiliazioak (ekainaren 30an)	8.191	8.789	14.435	4.520	2.120	2.571
2013ko afiliazioak (ekainaren 30an)	8.084	8.659	13.926	4.375	2.025	2.536
Aldakuntza	-%1,31	-%1,48	-%3,53	-%3,21	-%4,48	-%1,36
Ibilg. eta ord. piezak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN
2012ko afiliazioak (ekainaren 30an)	1.708	1.033	1.543	457	150	585
2013ko afiliazioak (ekainaren 30an)	1.609	978	1.485	420	141	559
Aldakuntza	-%5,80	-%5,32	-%3,76	-%8,10	-%6,00	-%4,44
Guztira	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN
2012ko afiliazioak (ekainaren 30an)	14.648	13.757	21.714	5.709	3.366	4.589
2013ko afiliazioak (ekainaren 30an)	14.224	13.342	20.834	5.414	3.268	4.449
Aldakuntza	-%2,89	-%3,02	-%4,05	-%5,17	-%2,91	-%3,05

6. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

3 KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:

- Gorabeherengatik bereiztutako hiruhilekoa. Apirileko hilabete baikorrak konfiantzaren jaitsiera ematen den maiatzari ematen dio pausu, ekainean konfiantzaren hazkunde handia, 2012ko batezbestekoa gaindituz.

- 2013ko 2. hiruhilekoak aurreko urteko 3. hiruhilekoaren minimo historikoetatik bizi izandako berreskurapena sendotzen du.

URTEA/ HILABETA	KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEA	ONERO EGOERAREN ADIERAZLEA	IGURIKIMENEN ADIERAZLEA
12/01	68,30	42,80	93,80
12/02	58,00	36,40	79,50
12/03	63,70	40,20	87,10
12/04	50,30	31,90	68,60
12/05	50,50	31,00	70,00
12/06	50,60	30,60	70,70
12/07	37,60	24,30	50,80
12/08	41,60	27,30	55,90
12/09	43,20	28,30	58,10
12/10	44,80	30,10	59,60
12/11	45,00	28,80	61,30
12/12	44,30	26,70	61,90
13/01	55,70	36,20	75,20
13/02	50,70	32,10	69,20
13/03	52,10	35,00	69,20
13/04	56,70	37,70	75,60
13/05	50,80	35,80	65,80
13/06	61,80	45,90	77,60

7. taula. Iturria: CIS. Lantzea: Ikusmer.

Apirileko Kontsumitzailearen Konfiantzaren Adierazlea (KKA) 56,7 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuari dagokionez, 4,6 puntu gorago. Hilabete honetako KKAREN igoera uneko egoeraren hautemate hobeko baten ondorioz ematen da (+2,7) eta bereziki igurikimenearen igoera garrantzitsuaren ondorioz, (+6,4). Igoera honen eta azken hilabeteetan metatutako igoeren ondorioz, momentu hauetan adierazlea aurreko urteko datu berarekin erkatuz 6 puntu baino gehiago hazi da. Uneko egoerako balorazioa 5,8 puntu gainera aurkituz eta igurikimena 7 puntutan igoz. Dena den, kontuan hartu behar da aurreko urteko apirilean 2012ko uztaileko minimo historikoetan bukatu zuen jaitsiera prozesua barruraten zela. Edozein kasutan, aipatzekoa da, KKAK momentu honetan, 56,3an kokatzen zen aurreko urteko balio ertaina gainditu duela.


Maiatzean KKA 50,8 puntutan kokatzen da. Aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz, 5,9 puntu azpitik. Jaitsiera hau uneko egoeraren balorazio kaskarrago baten ondorioz (-1,9) eta batez ere, igurikimenearen okerragotzearen (-9,8) eraginez ematen da. Aurreko urteko hilabete berdinarekin erkatuz adierazlea nahiko lau agertzen da, 0,3 puntutako aurrerapen txikiarekin. Dena den, uneko egoeraren balorazioa ekainean aurreko urteko datu berdinarekin alderatuz 4,8 puntu gainera aurkitzen bada ere igurikimena 4,2 puntutan murrizten dira.

Ekaineko KKA 61,8 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin erkatuz 11 puntu gainera. KKAREN hazkunde nabarmen hau uneko egoeraren balorazio hobeko bati (+10,1) eta igurikimenearen hazkundeari, 11,8 puntu zor zaio. Aurreko urteko ekaineko hilabeteari dagokionez, adierazleak antzeko aurrerapena erakusten du, aurreko urteko datuarekin alderatuz 11,2 puntutan handitzen da, igurikimenei (+6,9) eta bereziki uneko egoeraren bilakaera faboragarriago bati esker (+15,3)

Informazio gehigarri moduan aipatzekoa da, igurikimenearen hiruhileko bilakaerak, prezio, interes tipo, etxeetako aurrezte aukera eta ondasun iraunkorren erosketen dagokienez orain arte komentatutako datuekin bat egiten duen garapena aurkezten duela.

Urte honetako lehenengo hiruhilekoari dagokionez, moderazioa eman da kontsumoko joera eta aurrezte hazkundera, aldi berean, prezioak igotzearen inguruko beldurrak motelki gora egin du eta interes tipoen moderazioen inguruko konfiantzaren hazkundera gelditu egin da.

2. grafikoa konfiantzaren 3 adierazleen bilakaera azaltzen da, 2012ko urtariletik gaur egunera arte.



2 Grafikoa. Iturria:CIS. Lantzea: Ikusmer.

4 KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:


- Prezioen hazkunde iragankorra erregai eta jatekoek eraginda
- Urte arteko alderaketa: Ekainean inflazioak %0,2ra moteltzen da.

URTEA/ HILABETA	INDIZEA	HILEKO ALDAKUNTZA	AURTENGO ALDAKUNTZA ORAINGOZ	URTEKO ALDAKUNTZA
13/04	103,9	0,5	-0,3	%1,5
13/05	104,4	0,1	-0,1	%1,8
13/06	104,1	0,1	-0,1	%2,0

Unitatea: 2011 Oinarria=100

8. taula. Iturria: Eustat.Lantzea: Ikusmer.

Erregaien eta lubrifikatzaileen garestitzeak urte arteko inflazioa bi hamarrenetan igoarazi zuen eta %2,0an kokatu zen ekainean, Espainiako Estatistika Erakundeak (INE) argitaratu dituen azken datuen arabera. Horren ondorioz, dagoeneko bi hileko kateatu dira goranzko bidean, nahiz eta igoera iragankorra izango dela eta datozen hilekoetan prezioen hazkundera motelduko dela pentsatzen den. Espero den jaitziera hori nabaria izango da, bereziki, irailetik aurrera, orduan desagertuko baita BEZaren 2012ko igoeraren goranzko eragina eta prezioen kalkulua homogeneousagoak izango diren osagaiekin egingo baita.



3. Grafikoa. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

Inflazioaren gehikuntza eragin zuen faktore nagusia erregaien garestitzea izan bazen ere, elikagaien goranzko joerak ere bere alea jarri zuen bilakaera horretan, neurri txikiagoan izan bazen ere. Horiek horrela izanda, prezioen igoera lotuta zegoen indize orokorraren atal gorabeheratsuenen bilakaerarekin. Zehazkiago, hondar inflazioaren gehikuntza tasa maiatzeko %0,4tik ekaineko %2,3ra igo zen eta azpiko inflazioa, kontsumoko prezioen hondoko joera hobekien erakusten duen adierazlea baita, ez zen igo eta, alderantziz, hamarren bat gutxitu zuen urte arteko tasa, %2,0tik %1,9ra. Aurreko guztiak sendotzen du

gorakada hau iragankorra izango delako ideia, baldin eta arauak aldatzen ez badira edo zergak igotzen ez badira, neurri horiek kontsumoko azken salneurrietan eragina izan dezakeelako. Zentzu horretan, ikusi beharko da argindarraren azken igoyerak KPI orokorrean izango duen eragina.

KPI TALDE NAGUSIAK			
URTE ARTEKO ALDUKUNTZA TASA			
	Euskadi	Espainia	Espainia*
INDIZE OROKORRA	2,0	2,1	0,1
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	4,1	3,7	2,4
Alkoholodun edariak eta tabakoa	4,3	4,3	2,7
Jantziak eta oinetakoak	0,1	0,1	-2,3
Etxebizitza	0,4	0,4	-1,4
Etxeko hornidura	2,8	1,4	-0,5
Medikuntza	5,0	13,5	12,7
Garraioak	1,4	1,7	-0,7
Komunikazioak	-4,1	-4,0	-6,3
Aisia eta kultura	2,9	1,6	-2,2
Irakaskuntza	3,2	10,4	10,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,4	0,7	-1,1
Beste batzuk	2,8	2,7	0,2

(*) KPI zerga konstanteetara

9. Taula. Iturria: EIN. Lantzea: Ikusmer

Beste aldetik, zerga iraunkorretan kalkulaturako KPI indizeak, Estatu osoarentzat bakarrik argitaratzen baita, aurreko bi hilekoetako balio negatiboak atzean utzi zituen eta lau hamarren igo zen, %0,1ean kokatu arte. Zalantzarik gabe, erregaien garestitzea dago bilakaera horren azpian. Aldi berean, EAEk Eurogunearekin daukan inflazio aldean lau hamarrenetara iritsi zen, aurreko hilekoan jaso zuen balioa berdinduz. Beraz, dagoeneko hamar hilekoz jarraian, EAEko inflazioa Europako batez bestea baino gehiago hazi da, nahiz eta irailtik aurrera diferentzial hori bertan behera geratuko dela espero den.

Espero zitekeen bezala, salneurrien ekaineko hazkundean eragin handiena izan zuen ondasun taldea garraioarena izan zen, beraren urte arteko aldakuntza tasa 1,6 puntu igo baitzen aurreko hilekoko emaitzaren aldean, %1,4an kokatu arte, oraindik apal samarra den zenbatekoa delarik. Etxebizitza taldeari lotuta dagoen indizea ere (%0,0tik %0,4ra igo baitzen) berogailuetarako gasolioaren salneurriaren bilakaera nabaritu zuen. Azkenik, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak biltzen dituen taldeak ere gora egin zuen eta %4,1ean kokatu zen, pataten eta haragiaren garestitzeak bultzatuta. Beste muturrean, komunikazioak %4,1 merkatu ziren aurreko urtean zuten kostuaren aldean.